



(+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



2004-2005 ikasturtean, Kreditu guztien % 70 inguru ikas daiteke euskaraz, eta derrigorrezko diren 35 irakasgaietatik 26 euskaraz eskaintzen dira

FEUSEren FARMABURUA EHUko Farmazia Fakultateari

*J*azko urrian kaleraturiko Farmaberri aldizkarian (18. zenbakia) FEUSEren FARMABURUA aurkeztu genuen. Orduan genioen eskertu nahi genuela farmaziaren arloan euskararen erabilera bultzatzeko, indartzeko eta normalizatzeko egiten diren ekimenak, egitasmoak eta ekintzak, eta edozein gizabanakok, taldek, erakundek edo elkartek eskuratu ahal izango zuela. FEUSEren FARMABURUA Bernat Vidal eskultoreak egindako artelana da eta bi urtean behin ematea da FEUSEko Batzorde Zuzendariaren asmoa.

Horiek horrela, FEUSEko Batzorde Zuzendariak, 2005eko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO FARMAZIA FAKULTATEARI ematea FEUSEren FARMABURUA, azken urte hauetan, fakultatean bertan, euskararen erabilera normalizatzearan alde emandako aurrerapausoengatik.

Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultatean 1995-1996 ikasturtean hasi ziren lehenengo aldiz euskarazko eskolak ematen lizentziaturan, beraz, datorren irailean hamar urte beteko dira euskarazko eskolak eskaintzen hasi zirenetik. Ha-

**Datorren irailean
hamar urte beteko
dira euskarazko
eskolak eskaintzen
hasi zirenetik**

sieran, lehenengo mailako irakasgai batzuk besterik ez ziren ematen euskaraz, baina, gaur egun (2004-2005 ikasturtean) kreditu guztien % 70 inguru ikas daiteke euskaraz; derrigorrezko diren 35 irakasgaietatik 26 euskaraz eskaintzen baitira.

1995-1996 urtean euskarazko eskolak ematen hasi ziren irakasleak hauek izan ziren:

PEDRO ARCINIEGA FERNÁNDEZ DE LANDA, *Matematika Aplikatua* eta *Método Estatistikoko* irakaslea.
AINTZANE ASURMENDI MALLEA, *Biología Zelularra* eta *Biología Aplikatuko* irakaslea.
ROSARIO BERRA-





ONDO JUARISTI, *Fisika-Kimikako irakaslea.*

GONTZAL GARCIA DELCAÑO, *Giza-Anatomia eta Organo-genesia eta Nerbio-Sistemaren Antolaketa Morfofuntzionaleko irakaslea*

MAILLO VIRTO LEKUONA, *Biokimikako irakaslea.*

Gaur egun denek jarrizten dute eskolak ematen Farmazia Fakultatean, nahiz eta irakasgaiak pitin bat aldatu diren, 2002an ikasketak plan berria martxan jarri baitzen.

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEko kideok ere aurten Elkartearen hamargarren Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna ospatuko dugu. Batzarra eta jai eguna, Granja Ntra. Sra. de Remelluri, S.A.k Bastida/Labastidan (Araba) dituen Upeletgietan izango da, datorren apirilaren 3an, igandean, hain zuzen.

Bastidako inguru eder horietan, bada, Remelluri Etxe zoragarrian, Euskal Herriko Unibertsitateko FARMAZIA FAKULTATEARI emanngo diogu lehenengo FEUSEren FARMABURUA.

Gure zorionik beroenak Farmazia Fakultateari eta txalo-zaparrada duela hamar urte euskarazko eskolak ematen hasi ziren bost irakasle goresgarri, presu horiei.

Maiztasuna dela eta osasun publikoan garrantzi handia hartu duten eritasun psikiatrikoak dira bi hauek. Batez ere emakumeengan ematen dira (%90), nahiz eta gero eta gehiago eritasun hauek gizonetara diatzen diren. Pubertatean, emakumeen %0'5-1 bitartean jasaten dute anorexia nerbiosoa (AN) eta bulimia nerbiosoa (BN) berriz % 1-3 bitartean.

EZAUGARRIAK:

AN: Pisu galtze izugarria izaten da, jateari uztearen, nahita gonbitoak botatzearen, gehiegizko aktibitate fisikoaren, eta diuretikoaren eta libragarrien ondorioz. Azala zartatzeraino lehortzen da, zahar itxura hartzen da eta batzuetan "lanugo" izenez ezagutzen den ilea ateratzen da. Emakumeetan hilerokoa desager daiteke. Pisua obsesio bihurtzen da, eta errealitatearen perzeptzioa aldatzen, beraz eritasun hau beste eritasun batzuekin lotuta joaten da, askotan depresio eta sintoma obsesibo konbulsiboak.

BN: Batzuetan neurririk gabe jaten dute, baina gizentzeko beldurra dela eta, gonbitoa probokatzen dute, ondorioz honako sintomak ageri ohi dira: hortzetako esmaltearen desgastea, behatzean kailuak (hortzekin eginak), listu glandulen hipertrofia e.a. Sintoma psikopatologikoak ere izaten dira: inpulsibitatea (alkoholaz abusatzea), sentimenduak adierazteko zailtasuna...

AN eta BN askotan tartekatu egiten dira, oso desberdinak diruditen arren, eta askotan zaila izaten da bat edo bestea diagnostikatzea.

Ondorioak oso larriak izaten di-



Elikadura jarreraren desorekak Anorexia eta bulimia

ra gorputzaren funtzio guztietan

TRATAMENDUAK:

Elikadura eskasiak sortarazten ditu arazorik larriak, beraz nutrizio egoera egokia lortu behar da lehenengo (analisek adieraziko dute).

Tratamendu farmakologikoa: Animoa eta autoestima hobetzeko izaten dira:

- **Neuroleptikoak:** AN-an hiperaktibitatea jeisten dute. Jarrera konbulsibo obsesiboak hobetzen dituzte. Ez dira oso erabiliak, 2. mailako efektuak direla eta, gainera emaitzak ere aldakorak dituzte.
- **Antidepressiboak:** BN-an fluoxetina izaten da aukerakoa gehienetan; AN-an pisua normaldu arte ez dira gomendagarriak.
- **Benzodiazepinak** antsietatea tratatzeko erabiltzen dira.

Errehabilitazio psikosoziala: Batzuetan terapiak egiten dira.

BOTIKARIAREN FUNTZIOA ERITASUN HAUEN PREBENTZIOAN

Zenbat eta azkarrago egin diagnostikoa askoz ere errazagoa da errehabilitazioa, beraz, aurreikusia da eritasun honi aurre egiteko erarik hobereena.

Botikariak elikadura informazio on bat eman behar dio publikoari, osasun kanpainetan parte hartuz. Alarma seinalearen bat ikusiz gero (laxanteak beharrik gabe erabiltzea, maiztasun anormal batez pisatzea, dietak obsesiboki egiten hastea, elikagaien kaloriei buruzko kezka handia izatea, gehiegizko pisu galtzea...) familiakoren batekin hitz egin beharko litzateke, alarma handirik sortu gabe. Eta haien bidez osasun mental zentrorra bideratu (familia medikuaren bitartez).

Euskaraz sortutako farmazia arloko testu teknikoan kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko asmoarekin FEUSE SARIA sortu genuen 2003an. Euskaraz sortutako farmazia arloko testu teknikoan kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko asmoarekin FEUSE SARIA sortu genuen 2003an. Lehenengo deialdira sei lan aurkeztu ziren. Arrate Jauregi eta Itziar Fernandez de Larrinoa farmazialari gazte arabarrek irabazi zuten lehiaketa ardoari buruzko lan batekin, FEUSEko Batzorde Zuzendariak, bada, 2005eko otsailaren 2an egindako bileran erabaki zuen FEUSE SARIAREN bigarren deialdia iragartzea.



FEUSE Saria bigarren deialdia

Guztiok animatu nahi zaituztegu parte hartzera; ea lehenengo deialdia hobetzen dugun. Saria ez da makala 3.000 eurokoa alegia, baina dudarik gabe, guztiok poztuko gintuzkeena partehartze handia izatea litzateke.

OINARRIAK

- Farmaziarekin zerikusia duten euskaraz idatzitako lanak onartuko dira.
- Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Horrela ez izateagatik sor daitezkeen arazoan ardurua egileena izango da eta FEUSEk ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.
- Egileak bat edo gehiago izan daitezke, baina guztiak farmazialari edo farmazia fakultate bateko ikasle izan behar dute. Baldintza hau egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.
- Irudiak, grafikoak, argazkiak edo beste-lako eranskinak zenbakiturik eta testuarengandik bereizirik aurkeztuko dira.
- Lana osatzen duen testu guztia fitxategi informatikoan aurkeztuko da eta, aldi berean, ale bat DIN A4 formatuan inprimaturik aurkeztuko da.
- Lana prestatzeko erabilitako bibliografia ere aurkeztu beharko da.
- Lanarekin batera gutun bat igorri beharko da, bertan lanaren izenburua eta egilearen edo egile taldearen izen goitia

aipatzen direlarik. Gainera kartazal itxi baten kanpoaldean ere lanaren izenburua eta izengoiti berbera jarriko dira eta kartazalaren barruan egilearen edo egileen izen-deiturak eta harremanetarako telefonoa eta e-Postaa gordeko dira.

- Aurkezpen gutuna, inprimaturiko lana, euskarri informatikoan gordetako bertsiotia eta egilearen edo egileen datuak gordetzen dituen kartazal itxia elkarrekin igorriko dira honako helbidera:

Aita Menni Ospitalea

Juan Carlos Aristorena jauna
Farmazia Zerbitzua
Gesalibar, 15
20509 ARRASATE (Gipuzkoa)

- **Lanak jasotzeko epea:** 2005eko urriaren 31 bitartekoa izango da.
- **Partehartzaileak:** Farmazialariak eta farmazia fakultateetako ikasleak.
- Lanak aztertuko dituen **epaimahala** FEUSEK izendatuko du. Epaimahaikideek ezin izango dute lanik aurkeztu deialdi honetan.
- **Epaia** 2005eko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko zaio irabazleari.
- Epaimahaiaren erabakiaren aurkako helegiterik ez da onartuko.
- **Sariaren kopurua 3.000 €** izango da eta zatiezina da.

LEHENENGO FEUSE SARIA IRABAZI ZUEN LANA ARGITARATU DUGU

Duela egun batzuk jaso duzue lehenengo FEUSE SARIA irabazi zuen lana: Ardoa, onuragarria ala kaltegarria?, Arrate Jauregi eta Itziar Fernandez de Larrinoa farmazialari gazte arabarrek idatzitakoa.

Itxaron dugu lan bikain hori atseginerik irakurriko duzula eta baliagarri gertatu ardoaren alderdi desberdinak hobeki ezagutzen.

Liburuaren aurkezpenean esaten den bezala, lanak Jose Antonio Loidi bilduma osatzen du. Jose Antonio Loidi Bizkarrondo (1916-1999) FEUSEko ohorezko lehendakari izendatu genuen Elkartearen lehen Batzar Orokorren egunean, 1996an. Irungo farmazialari jator, jakintsu eta euskaltzalearen izena duen bildumaren laugarren zenbakia da hau.

Gure esker ona Granja Nuestra Señora de Remelluri S.A. upeltegiari. Haren diru-ekarpenak lagundu digu liburua argitaratzen eta euskararen normalizazioaren prozesuan beste aitzin pauso bat ematen.



FEUSEren X. Batzar Orokorra

Aurtengoan Remelluri upeltegietan

FEUSEren FARMABURUA saria EHUKo Farmazia Fakultateari

Atsegin handiz jakinarazten dizugu datorren apirilaren 3an, igandea, Granja Ntra. Sra. de Remelluri S.A.k Bastida/Labastidan (Araba) dituen Upeltegietan gure Elkartearen X. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna ospatuko dugula.

Remelluri Upeltegien berri jaso dugu, informazio oso polita eta interesgarria; tartetik hauxe atera dizugu: Granja Ntra. Sra. de Remelluri Toloñoko Monastegia-
ren antzinako jabetza da, 150 hektareakoa, haietarik 105 mahastiak.

Remelluri leku-izena X. mendean arabar konde batek sortutako herrixka bati dagokio. Bastida herrian gordetzen den libururik zaharrenean (1596. urtekoa bera) ikus daiteke XV. mendea ezkerotik, Granja Ntra. Sra. de Remellurik urtero 30 kantara bete ardo eman ohi zizkiola herriari.

Goi-erdi aroko nekropoli bat ederki kontserbatzen da, eta baita garai bereko basiliza bat ere.

"Granja"ren lilurak eta edertasunak erakarri zuten Jaime Rodríguez Salis gipuzkoar prestua, eta 1968an hasiera ematen dio enologi-abentura zoragarri bati. Antzina Jeronimotar monjeen jabetza izan zena berreraiki zuen eta bertako tempranillo eta graziano aukeratuz berri zuen mahastia. Antzinako zenobio-hondakinen gainean Granja Nuestra Señora de Remelluriko upeltegiak eraiki zituen. Bertan, Monasterioko mahastietatik datorren ardoa egin, landu eta botilaratzen da.



Apirilaren 3an, igandea, Bastidako Remelluri upeltegiak ospatuko dugu X. Batzar Orokorra

Aitzindaria etxaldeko ardo-kontuetan, eguraldi-giro erdi-hezea du, Atlantikoko eragina duena, eta bertako mahats-barietateak, tempranilloa, grazianoa eta garnatxa dira.

Poliki-poliki eta naturalean egindako ardoa, haritzik onena erabili, azkenean, benetako château-ardoa emango duena, zapore fresko eta iraunkorrekoa, bouquet handi eta oparokoa.

Informazio gehiago nahi ba-

duzu begira www.remelluri.com Oso interesgarria da.

Bastidako inguru eder horietan, bada, gure Elkartearen X. Batzar Orokorra egingo dugu eta, jarraian, FEUSEren FARMABURUA Euskal Herriko Unibertsitateko FARMAZIA FAKULTATEARI emango diogu, Fakultatean bertan, azken urte hauetan, euskararen erabilera normalizatzearen alde emandako aurrerapausoengatik.

Ekitaldia bukatutakoan, Remelluri Upeltegiak bisitatuko ditugu eta bertako berezko bazkari eder batek amaiera emango dio jai egunari.

Egitariu eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu; beraz, adi egon: datorren apirilaren 3an, Granja Nuestra Señora de Remellurin, Bastidan (Araba) duzu hitzordua. Oso ongi pasatuko duzu

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE)

XV. Osasun Jardunaldiak

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) antolatzen dituen XV. osasun jardunaldiak Iruñean izango dira, Osasun Ikasketen Eskolan (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), 2005eko maiatzaren 6 eta 7an. Orain arte bezala, jardunaldiak osasun arloan lan egiten duten profesional euskal-

dun guztientzat zein ikasleentzat daude zabalik.

Jardunaldiak «Adimen Osasuna: oztopak gainditzen» gaia izanen dute ardatz. Informazio gehiago, OEEren web orrian: www.oeegeunea.org